

SUGERENCIA 74: PARTICULAR

FECHA 1/02/2022

“Nik, Marijo Dañobeitia Zabala, XXX NAN zenbakiarekin eta Lezaman bizitokia duenak, alegazio hauek egiten dizkiot Bilbo Metropolitarrerako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialeko hasierako onarpenerako dokumentuari eta hala jaso izan dadila eskatzen dut.

Adeitasunez”

sinadura

1 *“Bilbo Metropoliaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenaren hasierako onarpenean, Lezamari dagokion planoan -P.O1-, Medio fisikoaren antolamendu planoan ematen zaion lurralde-kategorizazioan akats larri bat agertzen da, eta ez dator bat 2020ko Udal planean argitaratutako datuekin, beraz, hori dela eta, **eskatzen dut, oker agertzen den dokumentazioa eta kartografia zuzentzea.***

Beste barik, okerra zuzenduko duzuenaren esperoan, adeitasunez.”

Sinadura

2 *“Klima aldaketaren eraginen eta kalteberatasunaren azterketa.*

EAE-ko udalerriek klima-aldaketaren aurrean izango dituzten inpaktuak eta kalte beratasun azterketak eginak daude antza denez,; lehortea handitzea nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean, ibai uholdeen eragina herrietan eta hiri-ingurunean...datuak ez dira oso positiboak.

Bero-aldi luzeak eta muturreko fenomeno ugariagoak aurreikusita daude eta ugre ardura da giza-faktore hauek saihestea posible den neurrian, uholdeen kasuan adibidez, kalte pertsonal eta material handiak izaten direlako; hori dela eta, **eskatzen dut, gure herrian, Lezaman, URA agentziak Asua ibaia inguruko kalifikazioa PIPi-n 500 eta 100 urtetarako dituen prebisioak errebisatzea eta aldatzea, 2021eko abenduko euri jasak adibide hartuta. Erreka inguruetakoko eremuetan derrigorrezko landaketak egitea eta erreka inguruetakoko aktibitateak eta eraikitzeak galaraztea.**

Beste alde batetik, bero-boladen inpaktua giza osasunean maila handian aurreikusten da taulan, hori hola bada, aurre plangintza bate gin beharko da ere; hori dela eta, **eskatzen dut, herriaren inguruan eraztun berdeak sortzea, ez banakako zuhaitz ilara horiek, gune trinkoak landatzea, legez;gerizpea eta haizeguneak sortzeko; eraikitzeak diren tokietan beste horrenbeste erresebatzea zuhaitziak sortzeko, bai etxebizitza eremuetan eta baita gune industrialetan ere, lur eremuetan landatzeko eta ez porlan artean egindako zuloetan. Gaur egungo moduak aldatzea eta benetako garrantzia ematea arazoa izango den horri.**

Beste barik,”

sinadura

3 “Bizitegi-kuantifikazioa

Herri txiki batean, Lezama kasu, eraikuntza aurreikuspena edo beharra 116 etxebizitzatan kalkulatzen da. Baina aplikatzen duzuen formula baten bitartez, 303 etxebizitza egiteko aukera ematen du. Norentzat hainbeste, eta zein etxebizitza mota?

Etxebizitza beharrean egon den gazte kopuru handi-handi batek herritik alde egin behar izan du herrian bizitzen geratzeko aukerarik eduki ez duelako. Gazteak dira herri baten patrimonio Nagusia, kultura, hizkuntza, lana, proiektuak, geroa...hauek alde egiten dutenean nor dator herrira bisitatzeraz? gazte horiek ez, seguru.

Hori dela eta, eskatzen dut, legeak berak derrigortu behar duela % portzentai altua herriko gazteentzat eskuragarri den etxebizitza babestua eraikitzea, beharrean eta eskaeraren arabera. Bai jabetzan edo alokairuan eskuratzeko

Eraikitzeko orduan, kontutan hartzea ezgaituak, nagusiak, familia monoparentalak,...zaintza komunitarioa egitea errazten duten eraikina, elkarbizitza isolatua galarazten dutenak.

Beste alde batetik gainera, legez jasota egon dadila eraikin guzti guztietan, klima aldaketaren joera ikusita eta ordu eguzkitsu gehiago izango dugunez, eguzki-plakak teilatu guztietan jartzeko derrigortasuna, tranzizio enrgetikorako bizilagunok autonomoak izateko.

Eraikitzeko ereduak eta moduak aldatzea ere, ingurune atsegina sortzea, eta lurraren artifizializazioa gutxitzea, eraikitzen den azalera berberean, Belardi, zuhaizti trinkoak egitea eta berez dagoen edonolako arrastoa ukitu barik uztea.

Beste barik.”

Sinadura

4. “Ehiza eta arrain jarduerak

Gaur egungo bizimoduak, eta naturak berak jasaten ari den basakeriak ez du oso ondo ulertzen oraindik orain ehiza eta erreketako arrantza praktikatzea oso murriztua edo ia desagertuta dagoen euskal faunan. Batez ere, hegaztiak, gero eta gutxiago ikusten diren zozo, birigarro, oilagorra, artatxori eta abar. Ugaritzen diren beste espezie horiek basurdeak eta orkatzak izango dira, nahiz eta aipatu ez, ikertu beharko litzateke zergaitik diren kaltegarriak nekazaritzarako. Ez da izango euren habitat naturalak murrizten eta aldatzen ari garelako, eta zer janik ez dutelako, hain zuzen ere, espezie horrek zer janik eta ezer onik ematen ez duelako? Eta ehizarako beharra ikusten bada, arautu eta antolatu momentu puntual batzuetarako. Atera eskopetak mendietatik, utz ditzagun izaki bizidunak paketan.

Zer esanik ez arrantzarekin, gure ibai-erreka degradatuetan arraini gelditzen baldin bada, debekatuta egon beharko litzateke “superviviente” horiek arrantzatzea. Nahiko dute eta baldintza horretan bizirautea.

Hori dela eta, *eskatzen dut, inguruan ditugun eta neguan migratzera datozen animalien ehiza eta arrantza debekatzea.*”

5 Ingurune fisikoaren erabileraren eta jardueren arauketa.

“Aisialdirako egokitzen diren uneak, kasualitatez edo, toki atseginagoak direlako, ingurune natural eta parke natural deitzen diren hauetan kokatzen dira, bertoko baso mistoetan edo berezietan.

Mota honetako espazio apurrak degradatzen baino ez dira ari aisialdi mota hau dela eta - aisialdi kontsumista-, zabortege hutsak bihurtzen dira inguru horiek: aparkalekuak bertaraino, komoditatea denetarako. Barbakoak, mendian ere eredu kaltegarri berberak errepikatzeke. Pistak nonahi, edozein tokitara motordun ibilgailuarekin heltzeko, eta abar luze bat...

Zergatik ez eukaliptus inguruetan aisialdi tokiak? Badira degradatutako tokiak berez, baina antza denez erakargarritasun gutxikoak dira.

Horregaitik toki natural horiek babestea *eskatzen dut, aisialdia eukalipto inguruetara zabaltzea, legedi zorrotzagoa eta oztopatzaileagoa motordun ibilgailuak unera arte iristeko, bertara heltzeko erraztasunak saihestea, edo zirkulazioa mendi inguruetan debekatzea. Aparkaleku txikiagoak eta urrutiago kokatuak, pista gehiagorik ez zabaltzea babes une horietan, eta naturarekiko atxikimendu kultura eta errespetua zabaltzea instituzioek ikusten bide ugarietatik, aldeko ereduekin, ez propaganda hutsarekin, baizik eta eredugarria den eskuhartzearekin.*

Beste barik,”

sinadura

Baso kudeaketa eredia agortuta dago, eta horregatik klima aldaketa eta egungo ustiaketa ereduaren aurrean, bestelako basogintza ereduez plangintza egiteko ordua da, eta orain da momentua.

Basogintza esaten denean, "baso" hitzetik sortutako jarduera dela ematen du, baina oso baso gutxi dugu gure bistan, produkzio industrialerako sortutako lurrak bihurtu dira, zerikusi handirik ez duena baso kontzeptuarekin. Gaur egungo basoa %hein handi batean eukaliptoaren duen eremua bihurtu dute, instituzioak lagunduta.

Beste "basogintza" mota batetara begira planifikatu behar da, urte gutxitan desagertu egin dira hain aberatsak izan diren gure baso mistoak, bertako landaredia eta animaliak, eskrupulu gutxi duten batzuen onurako. Non dago gure kultura? Dena berdin zaien ezjakin batzuen eskuetan, hainbat txosten eta ikerketa egin ondoren eta berorren kalteak agerian utzi arren oraindik entzungor egiten dutenenetan. Diozuen patrimonio-naturala-kulturala non geratzen da? Lau parke natural masifikatuetan, ze, nor dabil eukaliptus betetako baso horietan?

Horregatik, eskatzen dut, benetako basogintzara bueltatzea biodibertsitate galera geldiaraztea eta bertako basoak berreskuratzea, eukaliptoaren landatzea debekatzea ja, bueltarik ez duen kalteak sortzen ari delako eta basamortua sortzetik oso urrun ez gaudelako, "erabili burue", baten batek esan zuen lez. Neurriak hartu nahi badira hobe orain, berandu baino lehen.

Basoen kudeaketan irizpide argiak legialatu, agindu, LPP-ak dioen bezala paisaia eta basoak bertoko zuhaitz eta landarediarekin babestea.

Adeitasunez."

Sinadura.

7. *Natura babes bereziko lurzorua.*

“Puntu honetan, baso autoktonoak, ur-ibilguak, korridore ekologikoak...aipatzen dira, besteak beste.

- Baso autoktonoak berreskuratzea zaila ikusten dut hamarkadetan egindako kalteak behin behinean ezin direlako modu errezean lehenera bueltatu. Gaur egun, basoak, gehienak, oso degradatuta daude, zerrendatzen diren zuhaitz mota horiek desagerrarazi direlako inolako babesik gabe; bai gelditzen dira indibiduo batzuk, baina oso sakabanatuta, pobretuta eta isolatuta mono landaketa (eukaliptu) inguruetan, etorkizun handi barik, zabaltzean edo garapenean; beste elementu hori oso erasokorra delako eta inguruan sortzen den guztia eliminatzen duelako. Eukaliptoa landatutako tokietan matarrasa egin eta gero panpa belarra da nagusi, jakina da soildutako lurretan oso erraz finkatzen eta zabaltzen dela, aldiz, gure baso autoktonoak ez ordea. Desoreka galanta. Batzuentzat erreztasunak baino ez eta etxekoei oztopoak nonahi.*

Gainera, gaur egun erabiltzen den ustiaketa modua basatia da, matarrasa deritzona, naturari egin dakioken errespetu falta handiena da. Ehun urte behar baditu lurrak zentimetro bateko lur emankorra sortzeko, hondeamakina batek segundu bakar bat behar du lan guzti hori modu mespretxagarrian deusesteko.

Hori dela eta, eskatzen dut, benetako asmoa baldin bada baso autoktonoak lehenaraztea edo babestea, has zaitezte ja eukaliptoaren landaketa debekatzen, moztuta moztuta gero ere gai delako beste sei ateraldi egiteko, horrek dakarren lur eta ur ustiaketa beldurgarria. Belardi menditarretan eta ez menditarretan eukaliptua landatzea debekatzea biodibertsitate galera geldiarazteko. Baserrietatik oso gertu geratzen dira eukaliptu landaketak, beroaldiak aipatzen dituzue, jakinda horrek dakarren sute arriskua toki horietan, debekua litzateke logikoena.”

- “Ur-ibilguak babestuta daude edo kategoria hori dute behintzat. Erreka inguru gehienak, Bilbo Metropoli eremuan sartzen direnak, degradazio maila handia pairatzen dute, gehienak oso eraikita daudelako, ia erreka ertzetaraino; askotan enpresa gunek dira, eta utzikeria da nagusi. Enpresa horiek ez dute inolako ardurarik ingurumenarekin eta dena dute zilegi, inguruak ikustea baino ez dago; gainera gehienak biltegiak dira eta kamioi joan-etorriak etengabeak dira, soberakinak non amaitzen dute agerikoa da, bide-erreka bazterretan. Beste arazo larri bat eukalipto landaketa erreka ertzearaino egitea da, erreka eremu naturala guztiz eraldatzen duenean, eta mozketa heltzen denean lotsagarria da ikustea zelan zanpatzen duten erreka ertza eta inguruko arbolatxoak, nork kontrolatzen du enpresa horien lan egiteko modua?

Hori dela eta, **eskatzen dut, enpresa guzti-guztiak barruko arduraz aparte kanpokoaz ere arduratzea, bide isunak badaude ba..., izan daitezela enpresa isunak utzikeria kasu horietan ere. Beste alde batetik, Aldundiaren ardura da aldarrikatzen duen basogintza egitea, eta ez forestalisten interesen morroia izatea.**

Enpresa berriak, etxebizitzak edo edozelako azpiegiturak eraikitzeke erreka ibilguetatik distantzia handi batera ez bada, ezin dela eraiki arautzea.

Beste alde batetik, norbanakoen utzikeria ere badago, bide bazterrak ikustea baino ez dago, aspaldian modan jarri da antza, gidatzen doazen bitartean jatea eta edatea eta leihotik plastikoak, Itak eta botilak botatzea, tripa jana egin ondoren.

Arazoa da zabor guzti horrek karkaban amaitzen duela eta gero errekan, itsasoan amaitzeko, beraz, **eskatzen dut, bide bazterrak garbitzen direnean, belar mozketa, brigadillak zabor hori ere batzea mila zatitan bihurtu baino lehenago. Eta naturekiko kontzientzia kulturala zabaltzea bestelako mezu-publizitate ganorabakoak zabaltzen diren bezain beste. Efektua sortzeko, medioak badaude eta, horretarako. pedagogia eta filosofia kontua ere badelako gai hau.”**

- “Korridore ekologikoak eta azpiegitura berdeak aipatzen dira motordun garraioari garrantzia eta lehentasuna eman zaionean, eta, saihesbideak handitzen eta bikoizten ari direnean, Txorierrin behintzat, karril batetik bira, bi eginda daudenean, hirugarrena eta horrela infiniturarte? Aurreikusten zen parke Teknologikoak ekarriko zuen trafiko karga, dena toki batean kontzentratzeagatik, gero datoz zuzenketak...gelditzen den berde apurra suntsitu behar beste karril bat, errotondak, sarrerak-irteerak zabaltzeko... Txorierriko Berrikuntza ardatzak klima aldaketa arintzea du helburu trafiko pilaketa eta gune industrial pilaketa sortu denean? Aire kalitateak okerrera egin duenean (aireportua, saihesbidea, abiadurak, trafiko astuna, saltoki handiak...)Hori dela eta, **eskatzen dut, nahiko azpiegitura eraikita dagoela hain toki txikirako eta lehentasuna garraio publikoari ematea, baina maiztasunean eta ibilbide berriak antolatzean beharizanaren arabera. Gure gazteak adibidez, unibertsitatara, Leioara joateko gabezia itzela dute, kotxea behar dute bertora heltzeko edo denbora galera dezentea zuzenean egitea ez delako posible.**

Eraikin berriak egin baino lehenago inguruan dauden etxeen eta pabiloien zerrendak egin, alokairuan eta salgai daudenen artean bat aukeratzeko, zoru gehiago ez okupatzeko.

Beste barik.”

Sinadura

- “Eje de innovación atalean, herri askotan, industriagune gehiago ikusten dituzue(mapa baten berde kolorea ikusten duzunean, eta gutxi da hori Bilbo Metropoli eremu honetan, grisa bihurtzeko grina adorea ez dut oso ondo ulertzen, planaren beste arlo batzuetan babestu, errekuperatu, leheneratu... hitzak agertzen direnean). Horiek zer dira? Apaingarriak, akaso Europatik datorren aholkuren bat, herritarrok gero eta gehiagotan eskatzen dugun aldarrikapena, eta, bai ala bai agertu behar den puntutxo berdea, mapakoa ordezkatzeko duena? Lezama, Zamudio industriagunez ondo ornituta dagoela uste dut, gehiegi esango nuke; horregatik eskatzen dut,bestelako aktibitateak egiteko izendatuta dauden natura gune berde horiek babestuak izatea eta kategoria hori ematea, ezinezkoa dalako korridore ekologikoak

sortzea ezerezetik. “innovación” horrek, “destrucción”dakar lotuta beti. Izan gaitezen zintzoak behingoz”.

8. Alegazioa Bilbo metropoli lurralde zatiko plana -LZP-

“Lezamako Plan Urbanistikoaren kartografiak gaizki jasota daude.

2020ko Udal planean jasotzen den moduan, Lezaman indarrean dauden arau urbanistikoak 1988ko Arau Subsidiarioak dira. Horren ondoren, Lezamako udalak onartu zituen Plan Orokorrak anulatuta daude hainbat sententzien bitartez.

Hori dela eta eskatzen dut:

1. Lezamari dagokion kartografia guztia zuzentzea eta agertu behar ez diren garapen urbanistiko guztiak bertatik kentzea: herrian bertan, Kurtseko poligonoan, Ugarte inguruan, Larrabetzuko mugan...

2. Terreno horiek Balio Estrategiko Handiko/Altuko nekazal lurak bezala kalifikatzea.

Eta hala ager dadin behar den tokian”

Sinatuta

9. Alegazioa Bilbo metropoli-LZP

“URA agentziak Lezamako Asua ibaiaren inguruko kalifikazio batzuk 100-500 urteko erretiroan sailkatu ditu, adibidez, Txupeta inguruan. Orain dela gutxi arte sektoreko PIPI-n ez zegoen horrela jasota.

Asua ibaia herrira ailegatzen denetik, batetik, zementuzko kanal sakon batean sartuta dago, eta bestetik, 100 metro inguru estalita daude helburu urbanistikoekin, horrela ibaiaren bizitza hasiera-hasieratik kaltetu egiten da.

Hori dela eta, eskatzen dut:

- 1. Ibaiaren ertzetako zementua kentzea eta ibilgua naturalizatzea.*
 - 2. Debekatzea etxeak eraikitzea ibaiaren ondoan- Lezaman badago non eraiki Asua ibaia gehiago kaltetu barik.*
 - 3. Debekatzea ibaia desbideratzea garapen urbanistikoan -etxebizitzak- mesederako.*
 - 4. Asfalto azpian estalita dagoen ibaia zatia berriro bistaratzea.*
 - 5. Asua ibaian, Lezamatik eta itsasoratu arte, ibai-parkea proiektatzea, Galindo, Kadagua eta Nerbioi ibai-parkeen antzera.*
 - 6. Aurreko PIPI-n zegoen kartografia berreskuratzea, proposamen horiek 83ko uriolen ondoren eta ondorioz egin baitziren, eta oraindik ez dira 40 urte pasa lerro batzuk 100 urte edo 500 urtera atzeratzeko.*
- Egia bada larrialdi klimatikoan bizi garela LPP-ren txostenean esaten den bezala eta muturreko eguraldi fenomenoak epe laburrean sufrituko ditugula -lehortek zein uriolak-, prudentziaz jokatu behar dugu derrigorrez, eta arriskuak saihestu beharko ditugu. Etxebizitzak ibaiaren ondo-ondoan eraikitzeke justifikaziorik ez dago.*

Adeitasunaz,”

Sinatuta

10. Alegazioa Bilbo metropoli-lpiz: Asua ibai-parkea

“Lurralde Plan Partzial honetan hainbat ibai-parke proposatzen da, konkretuki 3 ibai-parke: Nerbioi, Galindo eta Kadagua ibaien inguruan.

Asua ibaiak eta bere iturriek ere merezi dute halako plan bat, bere balioak sustatzeko, jasaten ari den degradazioari fretoa ipintzeko, eraikuntza berriak debekatzeko bere ibilguaren ondoan -fabrikak

zein etxebizitzak-, ibai-ertzeko landaretza berreskuratzeko, aisialdiko inguruak garatzeko, basoen kudeaketa hobetzeko eta bertako baso-espezieak landatzeko...

Asua ibaiak merezi duelakoan,

Adeitasunaz,”

Sinadura

11. Alegazioa Bilbo metropoli -lpz: bidegorriak

“12. PLANOAN- Motorrik gabeko mugikortasuna- “Oinezko eta bizikleten irisgarritasuneko metropoli sarean” zehaztuta dago Sare arterialaren barruan Zamudiori dagokion bide gorri bat, konkretuki marra gorriz definitzen da lehendik dagoen edo jadanik eginda dagoen bidegorria.

Esan beharra dago bide gorri horrek ez dituela betetzen gutxieneko segurtasun neurriak eta oso-oso arriskutsua dela. Errepide jeneralean dago eta kilometro bat egiteko 3 bider zeharkatu behar da errepidea, semafororik gabeko zebra-bideetan. Hain arriskutsua delako txirrindulariek ez dute maniobra hori egin nahi eta bide gorrian sartzen dira norabide berean dagoenean, bestela ez. Beraz, esan dezakegu erabiliezina den bidegorri bat dela.

Hori dela eta, eskatzen dut:

1. Zamudion beste bide gorri bat diseinatzea errepidea zeharkatu gabe, kotxeekin egiten den bezala.

2. Lezamatik Larrabetzura ere halako bide bat planifikatzea eta egitea.

3. Planoetatik errealtatera pasatzea eta, behingo, ganorazko sare bat egitea.

Bada garaia!

Adeitasunez,”

Sinadura

12. Alegazioa Bilbo metropoli -lpz: bidegorriak

“12. PLANOAN- Motorrik gabeko mugikortasuna- “Oinezko eta bizikleten irisgarritasuneko metropoli sarean” zehaztuta dago Sare arterialaren barruan Zamudiori dagokion bide gorri bat, konkretuki marra gorriz definitzen da lehendik dagoen edo jadanik eginda dagoen bidegorria.

Esan beharra dago bide gorri horrek ez dituela betetzen gutxieneko segurtasun neurriak eta oso-oso arriskutsua dela. Errepide jeneralean dago eta kilometro bat egiteko 3 bider zeharkatu behar da errepidea, semafororik gabeko zebra-bideetan. Hain arriskutsua delako txirrindulariek ez dute maniobra hori egin nahi eta bide gorrian sartzen dira norabide berean dagoenean, bestela ez. Beraz, esan dezakegu erabilezina den bidegorri bat dela.

Hori dela eta, eskatzen dut:

- 1. Zamudion beste bide gorri bat diseinatzea errepidea zeharkatu gabe, kotxeekin egiten den bezala.*
- 2. Lezamatik Larrabetzura ere halako bide bat planifikatzea eta egitea.*
- 3. Planoetatik errealitatera pasatzea eta, behingoz, ganorazko sare bat egitea.*

Bada garaia!

Adeitasunez,”

Sinadura